

Isiltasuna eten da

Kongoko sexu indarkeriaren arazoa, aintzira handien eskualdeko bake prozesuaren baitan

Sexu eta genero-indarkeria agertzen dira Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazka armatu konplexuan: hamarkadak iraun ditu eta ekonomia, politika, lurralde eta arraza-mailako lehian dago oinarrituta. Baliabide naturalak eta boterea eskuratzeko grinatik jaiotako borroka horren erdian, gerrako tresna bat da sexu eta genero-indarkeria, sarritan pertsonen eta lekuen eskubideen beste urratze batzuekin batera, besteak beste lurrak kentzea, mineralen merkataritza ilegala eta behartutako lekualdatzeak. Beraz, ez dago sexu eta genero-indarkeria ulertzerik edo borrokatzerik gatazka osoa aintzat hartzeke. Era berean, ezin da bake iraunkorrik ziurtatu Kongoko sexu-indarkeriaren izurriari heldu gabe. Haren oinarria —eta gotorlekua— emakumearen estatusa murrizten duten eta bortxaketa krimen kondenaezintzat jotzen duten gizarte-arauetan dago. Gatazka armatua gainditzen du, eta gizartea trantsizioan eta bakean dagoenean ere zabaltzen ditu bere sustraiak.

Gaur egun, Kongo bake-prozesu berri batean sartzen ari da, akordio zabal eta inklusibo baten baitan, eta horren eragile izan dira, hein batean, nazioartearen arreta gero eta handiagoa, M23 talde matxinoaren azken orduko porrota eta Nairobin sinatutako bake-adierazpenak. Ahalegin irmoak egin dira hainbat gai jorratuko dituen prozesu bat diseinatzeko —besteak beste desmobilizazioa, segurtasun-sektorearen erreforma eta ekonomiaren garapena—, baina legegileei kosta egiten zaie sexu eta genero-indarkeriaren aurkako tresnak txertatzea bake-prozesuaren agendan. Ia ezinezkoa da arazoari buruzko estatistika fidagarriak eskuratzeko, inpunitate handia dago sexu-indarkeriaren bultzatzaile nagusientzat, eta erretorikaitsuak isildu egin ditu krimenen erroak eta ondorioak.

Ezinbestekoa da Kongoko bake-prozesuaren alde egitea emakumeen eta nesken segurtasuna eta eskubideak hobetzeko, indarkeria armatua amaitzea, sexu-indarkeriaren erantzuleak identifikatzea, eta emakumeentzako ekonomia-aukera hobek sortzea. Kongoko ekonomia- eta segurtasun-mailako gatazka ezin da isolatu sexu eta genero-indarkeriatik eta emakumeak ahalduz, eta bide horretan saiatu behar dute legegileek eta abokatuek.

Bake-prozesuaren sustatzaileek bakea lortzeko tresnen gama osoa garatu behar dute, genero-ikuspegia eta Kongoko sexu- eta genero-indarkeria gogoan hartuta. Bestela, Kongoko gatazka armatuaren orbana izango da sexu- eta genero-indarkeria gerora ere, eta zaildu egingo du gatazka-osteko gizarte benetan baketsua sortzea, gehiegitan gertatu den bezala, adibidez Sierra Leonan, Hegoafrikan eta Guatemalan.

Dokumentu honek gatazkaren baitan kokatzen du Kongoko sexu-indarkeria, eta sexu-indarkeriaren eta gerraren eragile ekonomiko eta politikoen arteko loturak azaltzen ditu. Bake-prozesuan sexu-indarkeria amaitzeko tresnak nola txertatu ere erakusten die legegileei, sexu-indarkeria gerrako arma gisa erabiltzeari uzteko eta haren aztarna suntsitzailea arintzeko, Kongok bakerantz daraman bidearen barruan.

Gomendiak

Honako gomendio hauek eskaintzen ditugu Kongoko sexu eta genero-indarkeriari aurre egiteko eta prebenitzeko, bake-prozesu berriaren baitan:

- NBEko Mary Robinson mandatarari bereziak ziurtatu beharko luke berak urtarrilean abiarazitako Aintzira Handietako Emakumeen Plataformak lotura zuzena izatea estatuburuaren arteko goi-mailako elkarrizketetan. Emakumeak elkarrizketetan sartu eta aukera eman beharko litzaieke gai guztietan erabakiak hartzeko eta haietan eragina izateko, adibidez segurtasunean, justizian eta eskualdeko ekonomiaren garapenean.
- AEBek eta NBEak Kongoko agintariei lagundu beharko liekete Kongoko botere judizialaren barruan ganbera misto bat ezartzen, auzitara eraman ahal izateko gerrako krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak, besteak beste sexu-indarkeria, arreta berezia jarrita sexu-indarkeriaren biktimen eta lekukoaren babesean.
- Kongoko agintariak, NBEko Kongoko bakearen aldeko misioak (MONUSCO) eta Nazioarteko Zigor Auzitegiak arreta berezia jarri beharko lukete sexu-krimenen egile nagusiengan. Epaiketek errespetatu egin beharko lituzkete nazioarteko ikerketa-estandarrak, lekukoaren babesa eta prozesua zuzena izatea, eta heriotza-zigorra baztertu.
- Robinson eta Feingold mandatarari bereziak, segurtasun-sektorearen erreforma eztabaidatzeko orduan gomendatu beharko lituzkete emakumeak eta neskek babesteko tresnak, adibidez sexu-indarkeria egin edo onartu duten ofizialak ikertzea eta auzipetzea, eta polizia-kidegoak trebatzea larrialdietan erantzun ahal izan dezaten generoa kontuan hartuta eta eskubideetan oinarrituta.
- Robinsonek eta Feingoldek, NBEko ordezkari bereziarekin eta MONUSCOko Martin Kobler buruarekin batera, desarmatzeko, desmobilizatzeko eta gizarteratzeko programa bat abiarazi beharko liokete Kongori, gerratik eta esklabotzatik datozen emakumeen eta nesken premiak kontuan hartuz. Adibidez, babes-sareak egon beharko lukete gatibualdiko bortxaketetatik jaiotako haurrak dituzten ama gerlari ohientzat, bai eta trauma-osteko estres-nahasmenduen tratamenduak ere bortxaketak ikusi edo egin dituzten gerlarientzat, gizarteratutakoan sexu-indarkeriarik errepikatu ez dezaten.

- Kongoko mineralak ustiatzen dituzten elektronikako, bitxigintzako eta bestelako enpresek ekonomia-aukerak eman beharko lizkiekete emakumeei, hala nola mikrofinantzak eta bizimodua ateratzeko ekimen berriak, mineralen sektorea gardena eta gatazkarik gabea izan dadin, talde armatuei diruz laguntzeari utzita.

Kongoko sexu eta genero-indarkeria

2010eko apirilean NBEko Segurtasun Kontseiluan emandako hitzaldian, Gatazketako Sexu Indarkeriaren arloko NBEko Margot Wallström ordezkari bereziak "bortxaketen munduko hiriburu" deitu zion Kongoko Errepublika Demokratikoari.¹ Tankera horretako adierazpenek munduaren begietan jarri dute Kongoko sexu-indarkeria. Baina lau urte igarota ere arazoa hor dago, bai eta horren sustraiei buruzko gaizkiulertuak ere. Mugimendu aktibista bizia eragin dute Bakearen Nobel Sarirako izendatutako Denis Mukwege doktorea bezalako liderrek, Panzi ospitalearen sortzaileetako bat, ekialdeko Kongon. Berak eta bere lankideek arreta medikoa eman diete sexu eta genero-indarkeria jasan duten milaka laguni eta, mehatxu guztiak gorabehera, argi eta garbi erakusten dute arazoaren neurria eta larritasuna.

Sexu- edo genero-indarkeria gerra- edo bake-garaian erabilitako indarkeriazko ekintzak dira, sexuarekin, generoarekin edo biek zerikusia dutenak. Sexu eta genero-indarkerian sartzen dira bortxaketa eta hainbat tortura, sexu-mehatxu, esplotazio eta umiliazio, etxeko indarkeria eta zenbait esklabotza, intzestu eta borondatearen kontrako prostituzio mota. Sexu- eta genero-indarkeriari buruzko estatistikak ez dira zehatzak izaten. Datuen eskasiak eta froga fisikoak bildu ezinak kalte egiten dio estatistiken zehaztasunari, batik bat Kongon: eroldari buruzko datu gutxi dago eta segurtasunik eta azpiegitaririk ezak ikerketak oztopatzen ditu. Lehen eskuko lekukotzaz gain, ikertzaileek bi datu mota erabiltzen dituzte: medikuen eta abokatuen txostenak, eta biztanleriari buruzko azterketak. Azken hau da joerak ikusteko onena, baina hori neurtzea zaila da Kongon: lekualdatze eta migrazio handiak daude, eta biztanleriaren azken errolda 1984koa da.² Oso dokumentu gutxi daude, txosten-eskasiagatik eta konfidentzialtasun-mugengatik. Sexu-indarkeria jasan dutenek sarritan ez dute salatzen, mendekuaren edo estigmaren beldur. Txostenak jasotzeko eta gordetzeko azpiegitaririk eza ere oztopo handia da. Datuen fidagarritasunari kalte egiten dio Kongoko "bortxaketa komertzializatzeak" ere: teoria horren arabera, atzerriko diru-emaileetan Kongoko bortxaketen arazoa azpimarratzen dutenez, bertako agintariek datuak okertu edo lekukotza faltsua emanarazten diete herritarrei, atzerriko laguntza areagotzeko.³ Zenbakiak funtsezkoak dira sexu- eta genero-indarkeria ulertzeko eta aurre egiteko, baina legegileek gogoan izan behar dute estatistikak testuingururik gabeak direla eta zailak direla egiaztatzen. Sexu-indarkeriari buruz argitaratutako kopuruak isla txiki bat baino ez dira, eta nazioartean erantzunak estatistikaz harago joan behar du.

Kongoko sexu- eta genero-indarkeriari buruzko estatistiken gabezia hori gorabehera, aipagarriak dira zenbaki eta estimazio batzuk. *American Journal of Public Health*-ek 2011n publikatutako lan baten arabera, 2009rako Kongoko 1,92 milioi emakume inguru izan ziren noizbait bortxatuak, 462.293 aurreko urtean, eta probintzia guztietako 3,58 milioik pairatu zuten senarraren edo bikotekidearen sexu-indarkeria.⁴ Azterlanak ez zuen jorratu mutilen eta gizonen kontrako sexu-indarkeria, ez eta 15 urtetik beherako edo 49tik gorako emakumeak ere, nahiz eta sexu-indarkeriaren biktimentzako Hegoaldeko Kivuko ospitale bateko % 16 ez zeuden 15etik 49ra arteko tarte horretan. Ikertzaileen esanetan litekeena da datuetan motz geratu izana, eta ez omen zituzten zenbatu Kongotik joandakoak, bertan lekuz aldatuak edo

indarkeriaren ondorioz hildakoak. Muga horiek oso posible egiten dute, ikertzaileek onartzen dutenez, sexu-indarkeria jasan duten emakumeen kopuru handiak estimazio txikiak izatea.⁵ Ikerketa berriago batean, Kongoko Genero Ministroak eta NBEko Biztanleria Funtzak sexu-indarkeriaren 15.654 kasuren berri eman zuten Bandundu, Kongo Beherea, Katanga, Kinshasa, Iparraldeko, Ekialdeko eta Hegoaldeko Kivu probintzietan 2012an, 2011n baino % 52 gehiago.⁶

Txosten berriagoek diotenez, matxinoek eta Kongoko armadak, Forces Armées de la République Démocratique du Congo (FARDC), oraindik ere sexu-indarkeria erabiltzen dute gerrarako Kongon.⁷ 2013ko NBEko DRCKo Adituen Taldeak –NBEko Segurtasun Kontseiluak izendatu zuen gehiegikeriak dokumentatzeko– 2013ko bortxaketen berri eman zuen, talde armatu askok eginak: besteak beste, Forces de Résistance Patriotique d'Ituri (FRPI), Forces démocratiques de libération du Rwanda (FDLR) eta M23.⁸ Adituen Taldeak jakin zuenez, 15 emakume izan ziren bortxatuak Walikale eta Masisi komunitateetako erasoetan, 2013ko urriaren irailean eta urrian, Nduma Defense du Congok (NDC) eginak, liderra Sheka Ntabo Ntaberi zelarik, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak zigortua. Mai Mai Morganek egindako krimenak ere dokumentatu ditu Taldeak, besteak beste bortxaketa eta sexu-esklabotza.⁹ Azken aldian jakin duenez, 2012ko azaroko bost egunetan zehar, Morganen indarrek 150etik gora emakume bortxatu zituzten Mambasaren hegoaldeko urre-meategi baten inguruan.¹⁰ Kongoko armadak ere zerikusia du sexu- eta genero-indarkerian. NBEko Adituen Taldearen esanetan, "FARDCeko soldaduek dozenaka emakume eta neska bortxatu zituzten Kata Katangako matxinoen kontrako 2013ko operazioetan Mitwaba lurraldean."¹¹

Frogen arabera, badirudi Kongoko matxinoen eta armadaren buruei gerrako krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak egotzi ahal zaizkiela, besteak beste sexu- eta genero-indarkeria, agintari izatearen erantzukizunagatik. Krimen horien erantzule diren goi-mailako ofizialak sarritan ez dira ekintzen antolatzaileak ez egile zuzenak, baina sexu-indarkeria arma moduan erabiltzeko plan baten egile intelektualak dira, edo ez dituzte krimen horiek galarazten. Adibidez, Rwandako Nazioarteko Auzitegiko epaileen arabera, 1994ko apirilean, Jean-Paul Akayesu-k, Taba komunako alkateak, zuzenean ikuskatu zuen tutsi emakumeen bortxaketa sistematikoa Rwandako genozidioan, abusuak prebenitu, galarazi edo jakinarazi gabe.¹² Frogen arabera, Kongoko matxinoen eta gobernuaren indarretako buruzagiek sexu-indarkeriaz baliatzeko agindu diete beren tropei, lurraldeak eskuratzeko eta herritarren artean izua hedatzeko. 2013ko NBEko Adituen Taldeak aurkitutakoaren arabera, badirudi matxinoen eta estatuko armadaren buruzagiek bortxaketak edo sexu-esklabotzak ikuskatu edo antolatu zituztela, herritarrei eraso eginda bortxaketak burutzen ari zirela jakinda, eta gerrako krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen erantzule dira. Nazioarteko Zigor Auzitegiak Fatou Bensouda fiskal nagusiarengandik entzun berri duenez, M23ko eta Forces Patriotiques pour la Libération du Congo-ko (FPLC) Bosco Ntnganda buruzagi ohiak ikuskatuta eta aginduta bortxatu zituzten tropek herritarrak. Bensouda-ren esanetan, FPLCK bortxaketak erabili zituen hema arrazakoak ez ziren zibilak izutzeko Ntnganda-ren agintepean, eta behin batean Ntnganda-k hiru emakume bortxatzeko agindu zien bere bizkartzainei, bera zegoen apartamentu batean.¹³ Ituri probintzian, NBEko Adituen Taldeak herriko buruzagiei entzun zenez, FARDCek, Fall Sikabwe jeneralak aginduta, hiru bortxaketa egin zituen hegoaldeko Irumu lurraldean, FRPIko matxinoen aurkako operazioetan.¹⁴

Bortxaketak eta sexu-indarkeriaren bestelako moduak tresna militar estrategikoak izan daitezke: taldeen psikologiak manipulatu eta komunitateetako sareak ahultzen dituzte izu, mesfidantza eta lotsaren bidez, batzuetan ekinaldi bakar batekin. Krimen horiek sarritan traumatizatu eta ahuldu egiten dituzte biktimak, bai eta ekintza horiek eginarazi edo ikusarazitako senideak eta komunitateko kideak ere. Sexu eta genero-indarkeriako krimenek kalte egiten diete tradizioz komunitateko emakumeak eta haurrak babesten dituzten agintariei

ere.¹⁵ Are gehiago, sexu-indarkeriak lekualdatzeak dakartza eta lekualdatzeek sexu-indarkeria dakarte: soldaduek eta matxinoek zibilak bortxatzen dituztenean, zibilek askotan ihes egiten dute, eraso gehiagoren edo estigmatizazioaren beldur. Herrialde barruan lekualdatutako pertsonak eta iheslariak, berriz, sexu-indarkeriaren arriskuan daude, hein batean lekualdatu eta iheslarietarako kanpamenduetan bizi direlako, segurtasunik eta lege-araurik gabe.¹⁶

Luvungiko erasoak

NBEko ikerketa batek jakin zuenez, 2010eko uztailaren amaieran, gizon armatuek eraso zioten Luvungi herriari, Iparraldeko Kivu probintzian. Etxez etxe joan omen ziren, zibilak taldeka bortxatuz eta ondasunak lapurtuz.¹⁷ Ikertzaileen esanetan, 387 zibil –300 emakume, 23 gizon eta 64 haur– bortxatu zituzten lau egunetan zehar.¹⁸ FDLR eta Mai-Mai Shekako gerlariak eta gerlari ohiak izan ziren, Emmanuel Nsengiyumva teniente koronelak zuzenduta, Congrès national pour la défense du peuple (CNDP) talde matxinoarekin batera.¹⁹ Inguruan zeuden NBEko dozenaka bake-indarrek ez zuten erantzun erasoaren aurrean.²⁰ Erasoaren ondoren Luvungi bisitatuta, NBEko Kongoko bakegintzarako idazkari nagusiaren ordeko Atul Khare-k esan zuenez, "Errudun sentitu nintzen neure buruarekiko eta han topatu nuen jendearekiko." Honako hau ere gehitu zuen, "Zera esan didate, 'Bortxatu eta basakeriak egin dizkigute, emaitzaz bakea eta segurtasuna.' Zoritxarrez, esan nien, ezin dizuet hori agindu."²¹

Eztabaidak daude Luvungiko erasoaren neurriaz. Boluntarioek, kazetariak, bizirik irtendakoak eta talde medikoek emandako informazio asko ez datoz elkarrekin bat.²² Hasierako NBEko ikerketari erantzunez, Kongoko gobernuak Luvungiko erasoengatik atxilotzeko agindua eman zuen Mai-Mai Shekako goi-mailako kideen kontra 2010ean, besteak beste Sheka Ntabo Ntaberi buruzagiaren eta orduko bere estatuburuaren kontra, Sidoke Kikunda Mayele. Mayele auzipetu baina epaiaren zain zegoela hil zen Goman. Sheka inputatuta egon arren ardura ofizialak izan zituen 2011n. Gaur egun ihes eginda dabil, gerlari matxino aktiboak zuzentzen. Gizarte zibileko kideek ikerketa sakonagoak eskatu dituzte, eta gaizkile gehiago atxilotzea. Eskaera horiei entzungor egin zaie, eta 2012ko azaroan M23k Goma bere esku hartu zuenean, desagertu egin ziren Luvungiko bortxaketei buruzko auzia prestatzeko bildutako dokumentuak.

Sexu- eta genero-indarkeriari aurre egiteko tresnak bake-prozesuan txertatzea

Kongoko sexu-indarkeriari aurre egiteko tresnak txertatu behar dira bake-prozesu berriaren baitan. 2013ko otsailean Bake, Segurtasun eta Lankidetzako Akordioa sinatu zuten NBEk, Kongok eta inguruko 12 herrialdek, eta horrek eskualdean bakea sendotzeko konpromiso berria bultzatu zuen eskualdean nahiz nazioartean. 2013ko azaroko M23 talde matxinoaren porrota eta M23ko buruzagiaren eta Kongoko gobernuaren artean sinatutako bakea baikortasun-iturri

izan zen. Robinson eta Feingold mandatari berezi izendatu izanak eta haien lanak markatzen du nazioarteak bake-prozesuan duen konpromiso gero eta handiagoa, eta azken aldian Angola ere agertu da bake-prozesu berri bat gidatzen laguntzeko. Egungo lehentasunak dira talde armatuentzako laguntzak etetea, segurtasun-sektorea erreformatzea, gerlariak desmobilizatzea, mineralen merkataritza garbi bat ezartzea, eskualde barruko ekonomia-lankidetzak, eta giza eskubideak larriki urratu dituztenak auzipetzea.

Angolak eta mandatari bereziek elkarlana areagotu behar dute estatuburuaren artean, bai eta ziurtatu ere emakumeek bake-prozesuaren alderdi guztietan parte hartu ahal izatea: besteak beste, goi-mailako negoziazio politikoak, azpiegituren garapena, gizarte zibileko kontseiluak, erantzukizun-prozesuak eta segurtasun-sektorearen erreforma. Horretarako abiarazi berri du Robinsonek Aintzira Handietako Emakumeen Plataforma (GLWP), emakumeek bake-prozesuan duten parte-hartzea sustatzeko.²³ Plataforma hori elkarrekin zuzentzen dute bideratzaileek eta diru-emaileek, horien artean Robinsonen bulegoak, Kongoko Emakumeen Funtzak, eta Aintzira Handietako Nazioarteko Biltzarrak (ICGLR). Haren zeregina da emakumeen erakundeak eta mugimenduak babestea, diru-laguntzak emanaz eta laguntza gehiago eskatuz eskualdeko emakume-taldeentzat.²⁴ ICGLRk protokolo bat ere argitaratu zuen sexu-indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko —estatu kideei gidalerroak eta konpromisoak eskainiz sexu-indarkeriaren arriskuan dauden pertsonentzat—, eta sexu-krimenak zigortzeko.²⁵ Otsailean, ICGLRk prestakuntza-zentro bat ireki zuen Kampalan (Uganda), justizia eta legea betearazi behar duten profesionalek hobeto erantzun ahal izateko sexu- eta genero-indarkeriaren biktimei, eta arlo horretako krimenak ikertzeko eta auzipetzeko.²⁶

Talde armatuak neutralizatzea, desarme, desmobilizazio eta gizarteratze-programak, eta segurtasun-sektorea erreformatzea —bake-prozesuaren funtsezko atalak— lagungarriak izan daitezke sexu- eta genero-indarkeria gutxitzeko ere, baldin eta Kongoko eta MONUSCOK horretarako tresnak abiarazten badituzte. Hainbat talde armaturen desertzioek goia jo zuten joan den udazkenean, hein batean NBEko Indarren Interbentzio Brigadak lagundu ziolako Kongoko armadari M23 garaitzen. 2.500dik gora gerlari eta komandante desarmatu ziren, M23ren porrotaren ostean.²⁷ Brookings erakundeak Megan Bradley analistak dioenez, M23ren porrotak "aukera bat izan behar du gatazkako sexu-indarkeriaren aurkako borroka areagotzeko."²⁸ Amore-emateak eta desertzioek bortxaketa masiboen makineria azpitik jan eta lekua egiten diete zerbitzu medikoei, datu-bilketari, erantzukizunari eta prebentzioari (adibidez, hezkuntza-ekimenak). Desertzioek gora egin berri dute, baina talde armatu askok ekinean jarraitzen dute. Orain dela gutxi piztu da indarkeria zenbait eremutan. M23ko gerlari ohiak berriro mobilizatu dira, eta Allied Democratic Forceseko (ADF) eta Mai Maiko matxinoen eraso berriek berriro sortu dituzte beldurrak eta lekualdatzeak herritarren artean.²⁹

Benetako desarmatze, desmobilizate eta gizarteratze-programa bat behar dute gizon eta emakume gerlariak eta neskameek, horien artean talde armatuek sexu-esklabotzara behartutako emakumeek. Trauma-osteko estres nahasmendua eta erasoen ondorengo trauma jasaten duten gerlari ohiak ere tratamendu psikosoziala behar dute. Trauma-osteko estres nahasmendua eta trauma horiek sarritan jaiotzen dira konbateko sexu-indarkeriak ikusetetik eta egitetik. Sexu- eta genero-indarkeria ez bada tratatzen desarmatze, desmobilizate eta gizarteratze-programaren baitan, gaizkileek berdin jokatu ahal dute desmobilizatu ondoren. Desarmatze, desmobilizate eta gizarteratze-programek laguntza eman behar diete talde armatuetan gerlari, neskame eta sexu-esklabo gisa arituta itzultitako emakumei eta neskei.

Segurtasuna erreformatzeko neurrien artean, poliziako eta armadako unitateek behar bezala erantzun behar dute sexu-indarkeriagatik eta generoan oinarritutako krimenengatik, besteak beste etxeko indarkeriagatik eta segurtasun-sektorearen barruko gehiegikeriengatik. Poliziako eta armadako unitateen trebakuntzak eta erreformak kontuan izan behar du generoa, eta segurtasun-sektorean gertatzen diren sexu-krimenen eta emakumeenganako mehatxuen aurreko inpunitatea zuzendu behar da. Segurtasunaren, legearen eta osasunaren sektoreek elkarrekin egin beharko lukete lan, sexu-indarkeriaren aurreko erantzunak koordinatzeko, eta, krimenak gertatzen direnean, salaketa-zentro egokiak, lekukoek babesa, zerbitzu medikoak eta frogak bilketa egon beharko lukete.

Ekialdeko Kongoko mineralen sektorea gatazkarik gabeko jarduera bihurtzea ezinbestekoa da bake-prozesurako eta sexu-indarkeriaren aurkako borrokarako. Kongon talde armatuek jarraitzen badute, hein batean ezta-ntalo-, tungsteno- eta urre-merkataritza ilegalagatik da. Mineralen eta indarkeriaren arteko loturak hausteko mugimendua indartu egin da eta talde armatuak diru gutxiago ari dira jasotzen lau mineral horietako hirutik, baina Kongoko errearen kateak —oparua eta oso gutxi erregulatua— mantentzen ditu oraindik ere zenbait talde armatu eta armadako unitate kriminalak. Mineralak eta bestelako baliabideak talde armatuentzako pizgarriak dira bortxaketak, sexu-torturak eta esklabotza erabiliz lurraldeak eta merkataritza-bideak kontrolatzeko. NBEko Adituen Taldeak jakin berri duenez, errearen eta elefante-boliaren merkataritza ilegala kontrolatu eta hari etekina ateratzen dietenek —gehienbat Mai Mai Morganeko komandanteek— bortxaketak eta sexu-esklabotza zuzentzen edo bultzatzen dute ere.³⁰ 2013an, Morganek Okapi Fauna Erreserbako elefanteak ehizatzeari utzi eta urre-meategiei ekin omen zien. "Eraso horietan", Taldearen arabera, "Morganen gizonek urrea ostu, janaria eta ondasunak arpilatu, emakumeak eta neskek bortxatu, lapurtutakoa garraiatzeko jendea bahitu eta emakumeak sexu-esklabo izatera behartzen zituen, miliziako kideentzako "emazte" moduan."³¹ Gobernu nazionalaren ekimenez eta industriaren arloko inbertsioek Kongoko errearen negozioa erregulatzen lagundu eta muga jarriko diete Morganek eta errearen negozio ilegalean sartuta dauden besteek egindako sexu-krimenei.

Inbertsioak sustatzeko erakundeak, eskualdeetako gobernuek eta multinazionalak behar bezala saiatzen badira Aintzira Handietan gatazkarik gabeko mineral-merkataritza bat sortzen eta talde armatuek meategiak eta merkataritza-bideak kontrolatu ez ditzaten, emakumeak ahaldu eta aurre egingo zaio sexu eta genero-indarkeriari. Mineralen sektorea erregulatzeak eta inbertsio pribatuak ezta-ntalo eta tungsteno-meategietatik kanpora bidali ditu talde armatu batzuk, eta egonkortasun eta segurtasun handiagoa dago garai batean matxinoek kontrolatutako zenbait lurraldetan. Eskualdeetako gobernuek eta industriako buruek gatazkarik gabeko mineralen sektore garden bat ari dira eraikitzen dirua talde armatuetara joan ez dadin, baina atzerriko inbertsio arduratsuek ere bultzatu behar dituzte. Besteak beste, bizimodua ateratzeko programa berriak eta mikrofinantzak eskaini beharko lirake, meategi-eremuetako emakumeen estatusa, aukerak eta babesa hobetzeko.³² Mineralen sektorea erregulatzeaz gain, ekonomiaren mailako lankidetzak eta azpiegituren garapena ere funtsezkoak dira bake-prozesuan. Errepideak, sare elektrikoak, eskolak eta bestelako azpiegiturak eraikitzea ezinbestekoa da emakumeak ahalduetzeko eta babesteko eta neskei hezkuntza emateko.

Ekonomia eta hezkuntza-aukerak merezi adinako trebetasunak eta estatusa emango diete emakumei eta neskei, bai eta beren eskubideen alde borrokatzeko gaitasuna ere.

Bake-prozesu zabal baten bidez gatazka armatua amaitzea beharrezkoa da, baina hori, besterik gabe, ez da aski Kongoko emakumeen eta nesken segurtasuna eta ongizatea

ziurtatzeko. Bake, Segurtasun eta Lankidetzak Akordioa modu iraunkorrean eta generoa aintzat hartuz ezartzeak epe luzeko konpromisoa eskatzen die gizarteko sektore askori. Gerraren ondorio zuzenek eta gerra-garaiko sexu- eta genero-indarkeriak komunitatean hausturak eta agintari politikoei mesfidantza eragin dezakete luzaroan. Sexu eta genero-indarkeriak trauma psikologikoa eta fisikoa sortzen die biktimei eta haien senideei, eta trauma-osteko estres-nahasmendua okertu edo gaizkileek krimenak egiten jarraitzen dute. Indarkeria mota honek sustraiak bota eta errepikatu egiten da, adibidez ekialdeko Kongon, non genero-desberdintasunak eta egitura patriarkalak ohikoak diren, eta inpunitateak sinetsarazi du bortxaketa ekintza onargarria dela, eta ez hainbeste krimen kondenagarria.³³

Sexu eta genero-indarkeriaren aurreko inpunitatearen kontra

Sexu-indarkeria gerrako krimena eta gizateriaren aurkako krimena da, eta inpunitatea badago Kongoko arazo hori ez da desagertzen. Goi-mailako komandante bakar bat ere ez da kondenatua izan Kongoko sexu-krimenengatik, eta nazioarteko jurisprudentziak ere motel jokatu du.³⁴ Oro har, Kongoko justiziaren sektorea ahula eta ustela da, ez dago borondate politikorik FARDCeko goi-mailako komandanteen kontra egiteko, eta horrek geldiarazi egin ditu sexu-indarkeria masiboa agindu eta antolatu dituztenak auzipetzeko ahaleginak. M23ko goi-mailako komandanteak kondenatuak bai, baina ihesean jarraitzen dute Rwandan eta Ugandan. Sexu-indarkeriari emandako erantzun gehienak atzerakoiak izan dira –horren barruan, funtsezko babes medikoa eta psikosoziala biktimentzat eta bizirik irtendakoentzat–, batik bat komunitate-mailako eta nazioarteko erakundeek emanak. Ahalegin horiek funtsezkoak dira, baina zerbitzu medikoen soilik ezin dituzte apurtu gaizkileekiko tolerantziaren eta inpunitatearen hormak. Sendagile asko nabarmendu dira erantzukizun eske, eta ezinbestekoak izan dira auzi kriminalak abiarazteko datuak eta testigantzak biltzen. Nolanahi ere, ez dago epaiketarik aurrera eramateko azpiegiturarik eta borondate politikorik. Kongok porrot egin du goi-mailako gaizkileak auzipetzeko orduan, eta hori mezu bat izan da buruzagi militar, komandante matxino eta zibilentzat: bortxaketak eta sexu-indarkeria onartuak daude gerraren albo-ondorio gisa.

Hagako gertaera berriek ere hutsuneak azaleratu dituzte sexu-krimenen aurreko nazioarteko erantzukizunean. Martxoaren 7an, Nazioarteko Zigor Auzitegiak sexu-indarkeriari buruzko bere lehen epaia eman zuen Germain Katanga-ren aurkako kasuan, FRPIko komandante ohia. Errudun jo zuten gerra-krimenengatik eta gizateriaren aurkako krimenengatik, besteak beste hilketak eta arpilatzeak ekialdeko Kongoko Bogoro herrian, eta absolutu egin zuten bortxaketatik eta sexu-esklabotzatik. Absoluzio horiek sakondu egin dute nazioarteko justizia kriminalean aspalditik dagoen hutsune bat, era Bogoron gertatu zenetik harago doan egia latz bat bistaratu dute: Nazioarteko Zigor Auzitegiak ez die behar bezala aurre egiten sexu- eta genero-krimenei. Era horretan, inpunitatea areagotu eta pentsarazten du sexu-indarkeria ekintza oportunistak bat dela, eta ez ongi kalkulaturako tresna bat gerrarako. Auzitegiak laster du gabezia hori zuzentzeko aukera, Kongoko beste kasu batekin. Bukatu berria da epaiketaren aurretik karguak berresteko bista Bosco Ntunga-ren kontra, M23ko komandante ohia, 2002an eta 2003an Iturin egindako krimenengatik. Fiskalak frogak aurkeztu ditu Ntunga bortxaketengatik eta sexu-esklabotzagatik epaitua izan dadin, eta epaileen esku geratu da sexu-krimenen bigarren kasu bati heltzeko erabakia.

Kongoko agintariak ere sexu-indarkeriarekin lotutako auzipetzeak ari dira egiten nazio-mailan eta tokian-tokian. Ekialdeko auzitegi militarrek auzi kriminalei ekin berri diete, eta bortxaketak

leporatu dizkiete behe- eta erdi-mailako beren ofizial batzuei, Minova (Hegoaldeko Kivu) eta Sake-ko (Iparraldeko Kivu) erasoengatik. Kongoko agintariek, gizarte zibilarekin eta nazioarteko diru-emalleekin batera, epaitegi mugikorrek ezarri dituzte bortxaketak auzitara eramateko tokian-tokian. 2008 eta 2012 artean, epaitegi mugikorrek bortxaketen 900 kasu epaitu zituzten Hegoaldeko Kivun bakarrik.³⁵ Nazio-mailako eta tokian tokiko kasu horiek argi erakusten dute gero eta interes handiagoa dagoela bortxaketak gerra-krimenez hartzeko, baina agerian geratu da Kongoko botere judizialean arazoak daudela, benetako erantzukizuna lortzeko oztopo direnak. Frogen estandar apalak, epaiketa desegokiak eta lekukoek babes eskasak kalte egin diete biktimen segurtasunari, akusatuen eskubideei eta Kongoko justizia militarren gaitasunari sexu-indarkeriak auzipetzeko.

Kongoko botere judizialean ganbera misto bat garatuz gero inpunitateari aurre egin eta osatu egingo lirakeke sexu-indarkeriaren nazioarteko, nazioko eta tokian tokiko auzipetzeak. Tokian tokiko eta nazioarteko abokatuek eta funtzionarioek eskatu dute Kongon ganbera misto bat sortzea gerrako krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak auzipetzeko, nazioarteko diruaren eta esperientziaren laguntzarekin. Horrek argi utziko luke Kongoren konpromisoa erantzuleak aurkitzeko, eta, aldi berean, ikerketek, epaiketek eta lekukoek babesak nazioarteko estandarrek betetzea ziurtatuko lukete. Ikerketak eta auziak aurrera daramatzaten fiskalek salaketa orekatuak prestatu beharko lituzkete, Kongoko gatazkaren alderdi guztietako gaizkilerik zitalenak hautatuta. Sexu-indarkeria sakon ikertu beharko lukete, etikan eta eskubideetan oinarrituta, arreta berezia jarriz froga fisikoetan. Biktimen lekukotza funtsezkoa da edozein auzitan, eta beste auzitegiek irakatsi digutenez, lekukotza ematen duten biktimek denetarikoa beharrak dituzte anonimotasun-neurriak, bizileku berriei eta babes psikosozialari dagokionez.³⁶

Mota guztietako gizarte-eragileen babesa ere funtsezkoa da sexu-krimenen erantzukizuna eskatzeko. Kabila presidentek sexu-indarkeriaren eta haur soldaduen arloko arduradun berezi bat izendatzeko asmoa iragarri zuen iragan urrian, baina oraindik ez du halakorik egin. Agintariak pentsatzen ari dira Kongoko epaileak eta fiskalak prestatzea ere, behar bezala auzipetu ahal izateko sexu-indarkeria eta baliabide naturalak arpilatzea. Fiskal nazionalak gizateriaren aurkako krimenengatik salatu dituzte M23ko eta beste talde matxino batzuetako goi-mailako zenbait kide, baina oraindik ez diete ekin FARDCeko goi-mailako komandantei. Ekimen horiek aurrera egingo badute abokatuek lagundu behar dute, bake-prozesuaren beste alderdi batzuetan bezala. Minova eta Sakeko auziek, epaitegi mugikorrek eta Nazioarteko Zigor Auzitegiak sexu-indarkeriagatik salatu dituen pertsonen kontrako karguek (adibidez Ntanga eta Katanga), beharrezkoa dute, hein batean, abokatuek erantzukizunak eskatzea sexu-indarkeriagatik. Auzien emaitza epaileen esku dago, frogetan oinarrituta, baina abokatu-taldean parte-hartzea funtsezkoa da iritzi publikoa eta politikak batera edo bestera bideratzeko, eta horrek eragina du gobernuaren eta auzitegien jardunean. Abokatu-taldeak sexu-indarkeriari buruzko auzien parte bihurtu dira hainbat herrialdetan, iritziak ematen baitituzte, txostenen edo lekukotzen bidez, besteak beste sexu-indarkeriaren joerei buruz eta sexu-indarkeriaren eraginei buruz. Abokatuek eragina izan dezakete fiskalek eta ikertzaileek zenbait kasu ireki, frogak bildu eta salaketa jakinak egin ditzaten, adibidez sexu-indarkeriari buruzkoak. Abokatuen presioa ezinbestekoa da ikertzaileek eta fiskalek lehentasuna eman diezaioten sexu-krimenen erantzukizunari.³⁷

Ondorioa

Bakea lortzeko itzaropen berriak daude Kongon: nazioarteko diplomaziaren ahaleginak bake-elkarrizketen alde, gero eta desertzio gehiago talde armatuetan, sexu-indarkeriazko gerrakrimenen ustezko egileen kontrako auzi penal berriak, eta enpresen gero eta konpromiso handiagoa mineralen merkataritza garbia eta gardena izan dadin. Hor daude, baina, mehatxuak ere: ADF eta FDLR talde matxinoek borrokan jarraitzen dute, baliteke M23 berriro piztea, Kongoko armadaren abusuek jarraitzen dute, eta gerrako jauntxoei mesede egiten die urrearen merkataritzak. Kongoko sexu-indarkeriak berekin dakartza inpunitatea, arriskua, bizilekuz aldatzea eta genero-arau bidegabeak, eta horiek denek ilunduko dute Kongo etorkizunean ere, nahiz indarkeria-giroan nahiz nolabaiteko lasaitasunean. Bakeak iraungo badu, Kongoko bake-prozesuak sexu-indarkeriari egin behar dio aurre. Eskualdeko estatuburuak eta nazioarteko mandatariak lanean ari dira segurtasunaren, erantzukizunaren, gizarteratzearen eta ekonomia-aukeren arloetan, eta tartean sartu behar dute genero-ikuspegia, bizirik irten direnentzako laguntza eta sexu eta genero-indarkeria zigortu eta prebenitzeko tresnak ere. Orduan bakarrik jarriko dute Kongo eta eskualde osoa bake iraunkor eta zabal baten bidean.

Enough

Genozidioarekin eta gizateriaren aurkako krimenekin amaitzeko proiektua

Center for American Progress-ek bultzatzen du Enough proiektua, genozidioarekin eta gizateriaren aurkako krimenekin amaitzeko. Enough 2007an sortu zen, eta Sudan, Hegoaldeko Sudan, ekialdeko Kongo eta Lord's Resistance Army borrokan ari den eremuetako krisiak hartzen ditu aintzat. Enough-ek landa-ikerketak egin, krisiei aurre egiteko politikak garatu eta tresnak ematen ditu aldaketaren alde ari diren herritarrek eta taldeak ahalduz. Enough hobeto ezagutzeko eta laguntze aldera zer egin dezakezun jakiteko, jo ezazu hona: www.enoughproject.org.

¹ BBC News, "UN Official Calls DR Congo: 'rape capital of the world,'" 2010eko apirilak 28, hemen eskuragarri: <http://news.bbc.co.Uk/1/hi/world/africa/8650112.stm>.

² U. S. Government Accountability Office, "The Democratic Republic of Congo: Information on the Rate of Sexual violence in war-torn eastern DRC and adjoining countries," 2011ko uztailak 13, hemen eskuragarri: <http://www.gao.gov/products/GAO-11-702>; United Nations Office for Project Services, "Gathering data to improve lives in the DR Congo," hemen eskuragarri: <http://www.unops.org/englishwhatwedo/UNOPSiraction/Pages/DR-Congo-IDP-data.aspx> (azken sarrera 2014ko martxokoa).

³ Jason Stearns, Judith Verweijen eta Maria Eriksson Baaz, "The national army and armed groups in the eastern Congo: Untangling the Gordian knot of insecurity," (Nairobi: Rift Valley Institute and Usalama Project, 2013), 78. or., hemen eskuragarri: <http://www.riftvalley.net/publication/national-army-and-armed-groups-eastern-congo-.Ut1nOvYo62w>.

-
- ⁴ Amber Peterman, Tia Palermo eta Caryn Bredekamp, "Estimates and Determinants of Sexual Violence Against Women in the Democratic Republic of Congo," *American Journal of Public Health* 101 (6) (2011ko ekaina), 1065. or., hemen eskuragarri: <http://aiph.aphapublications.org/doi/abs/10.2105/AJPH.2010.300070?hits=10&andorexactfulltext=and&FIRSTINDEX=0&searchid=1&author1=Bredenkamp&resourceType=HWCIT&RESULTFORMAT=&sortspec=relevance&maxshow=&>.
- ⁵ Ibid., 1065-66. or.
- ⁶ Kongoko Errepublika Demokratikoa, Genero, Familia eta Hauraren Ministerioa, "Ampleur des violences sexuelles en RDC et actions de lutte contre le phénomène de 2011 à 2012," Kinshasa, 2013ko ekaina, 1. or., hemen eskuragarri: <https://www.unfpa.org/webdav/site/global/shared/documents/news/2013/Rapport%20DM%20SGBV%202011-2012.pdf>.
- ⁷ Bortxaketa arma bat dela erakustea garrantzizkoa da, baina ez da nahikoa arazoaz ohartarazteko. Sexu-indarkeriak gerretan duen erabilera konplikatu da eta ez da behar bezala ulertzen. Premeditazio-maila aldatu egiten da batetik bestera (batzuetan ez dago batere), eta biktimak eta lekukoak berehala kikiltzeko eta umiliatzeko erabiltzen da. Batzuetan oportunitasoz gertatzen da, erantzukizunik, estatuaren aginterik edo norabide argirik ezean.
- ⁸ Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, "Final report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo," S/2014/42, 139. para., 2014ko urtarrilak 23, hemen eskuragarri: http://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/2014/42&referer=/english/&Lang=E.
- ⁹ Ibid., 65. para. Ikusi ere Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, "Midterm report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo," S/2013/433, 73., 75. eta 76. para., 2013ko uztailak 19, hemen eskuragarri: http://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/2014/42&referer=/english/&Lang=E.
- ¹⁰ Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, "Midterm report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo," S/2013/433, 76. para.
- ¹¹ Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, "Final report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo," S/2014/42, 56. para.
- ¹² *The Prosecutor v. Jean-Paul Akayesu (Trial Judgment)*, ICTR-96-4-T, International Criminal Tribunal for Rwanda (ICTR), 1998ko irailak 2, hemen eskuragarri: <http://www.refworld.org/docid/40278fbb4.html>; *Prosecutor v. Dragoljub Kunarac, Radomir Kovac and Zoran Vukovic (Trial Judgment)*, IT-96-23-T & IT-96-23/1-T, International Criminal Tribunal for the former Yugoslavia (ICTY), 2001eko otsailak 22, hemen eskuragarri: <http://www.refworld.org/docid/3ae6b7560.html>.
- ¹³ Wairagala Wakabi, "Prosecutor: Ntaganda Killed a Priest, Ordered Soldiers to Rape," Open Society Institute, 2014ko otsailak 11, hemen eskuragarri: <http://www.lubangatrial.org/2014/02/11/prosecutor-ntaganda-killed-a-priest-ordered-soldiers-to-rape/>.
- ¹⁴ Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, "Final report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo," S/2014/42, 141. para.
- ¹⁵ Human Rights First, "Dr. Denis Mukwege: Fighting Sexual Violence in the Democratic Republic of Congo," bideoa, 2013ko urriak 23, hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=r-OrOE4eq2w-t=74>.
- ¹⁶ Megan Bradley, "Sexual and Gender-based Violence in the Democratic Republic of the Congo: Opportunities for Progress as M23 Disarms?" The Brookings Institution, 2013ko azaroak 13, hemen eskuragarri: <http://www.brookings.edu/blogs/africa-in-focus/posts/2013/11/12-sexual-gender-based-violence-congo-bradley>.

¹⁷ Eztatidak daude Luvungiko erasoko bortxaketen estatistikei buruz. Ikusi Laura Heaton, "What Happened in Luvungi: On Rape and Truth in Congo," *Foreign Policy*, 2013ko martxoak 4, hemen eskuragarri: http://www.foreignpolicy.com/articles/2013/03/04/what_happened_in_luvungi.

¹⁸ Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren bulegoa (OHCHR) eta Kongoko Errepublika Demokratikoko Nazio Batuen Misioa (MONUSCO), "Final Report of the Fact Finding Missions of the United Nations Joint Human Rights Office into the Mass Rapes and Other Human Rights Violations Committed by a Coalition of Armed Groups Along the Kibua-Mpofi Axis in Walikale Territory, North Kivu, From 30 July to 2 August 2010," 2011ko uztaila, 4., 13. eta 21. or., hemen eskuragarri: http://www.ohchr.org/Documents/Countries/ZR/BCNUDHRapportViolsMassifsKibuaMpofi_en.pdf.

¹⁹ OHCHR eta MONUSCO, "Final Report."

²⁰ Jeffrey Gettleman, "Mass Rapes in Congo Reveal UN Weakness," *New York Times*, 2010eko urriak 3, hemen eskuragarri: <http://www.nytimes.com/2010/10/04/world/africa/04congo.html>.

²¹ Ibid.

²² Laura Heaton, "What Happened in Luvungi: On Rape and Truth in Congo." Micah Williams eta Will Cragin, "Our experience in Luvungi," *Foreign Policy*, 2013ko martxoak 5, hemen eskuragarri: http://www.foreignpolicy.com/articles/2013/03/05/our_experience_in_luvungi_congo_rape.

²³ African Press Organization, "Launch of Women's Great Lakes Platform in support of the Peace, Security and Cooperation Framework for the Democratic of Congo and the Region and Press Conference," prentsa-adierazpena, 2014ko urtarrilak 28, hemen eskuragarri: <http://appablog.wordpress.com/2014/01/28/launch-of-womens-great-lakes-platform-in-support-of-the-peace-security-and-cooperation-framework-for-the-democratic-of-congo-and-the-region-and-press-conference/>.

²⁴ NBEko Emakumeak, "A Framework of Hope: Launch of Women's Platform for Peace, Security and Cooperation Framework," 2014ko urtarrilak 29, hemen eskuragarri: <http://www.unwomenwestandcentralafrica.com/1/post/2014/02/a-framework-of-hope-launch-of-womens-platform-for-peace-security-and-coopration-framework.html>.

²⁵ ICGLR, "Protocol on the Prevention and Suppression of Sexual Violence against Women and Children," 2006ko azaroa, hemen eskuragarri: [http://www.internal-displacement.org/8025708F004BE3B1/%28httpInfoFiles%29/381B8D820A51C229C12572FB002C0C5B/\\$file/Final_protocol.Sexual_Violence_-_En.pdf](http://www.internal-displacement.org/8025708F004BE3B1/%28httpInfoFiles%29/381B8D820A51C229C12572FB002C0C5B/$file/Final_protocol.Sexual_Violence_-_En.pdf).

²⁶ ICGLR, prentsa-adierazpena, 2014ko otsailak 17, hemen eskuragarri: <http://icglr.org/index.php/en/homepage/135-laast-news/341-sgbvcenterkampala>.

²⁷ Ida Sawyer, "Unbroken Violence," Human Rights Watch, 2013ko azaroak 25, hemen eskuragarri: <http://www.hrw.org/news/2013/11/25/unbroken-violence-congo>.

²⁸ Megan Bradley, "Sexual and Gender-based Violence in the Democratic Republic of the Congo: Opportunities for Progress as M23 Disarms?"

²⁹ Edith M. Lederer, "UN Says Congo's Defeated M23 Rebels Active Again," Associated Press, 2014ko urtarrilak 13, hemen eskuragarri: <http://www.apnewsarchive.com/2014/UN-says-Congo-s-defeated-M23-rebels-active-again/id-41f50e43c95e4bf89439f5a07f561028>.

³⁰ Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, "Final report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo," S/2014/42, 65., 67., 139., 140. eta 236. para.

³¹ Ibid., 65. para.

³² Erregulazio formalagoak egin bitartean, gogoan eduki beharra dago meatzaritzaren sektoreko emakumeek eta neskek sexu-abusuaren eta prostituzioaren arriskuan jarraituko dutela, botere-dinamika eta genero-arauengatik. Meatzaritzaren sektoreak erregulatzeko ahaleginak generoa aintzat hartuz egin behar diete aurre arrisku horiei.

³³ Denis Mukwege doktorea, "Preventing and Responding to Sexual Violence in Conflict: Next Steps in a Global Struggle" Brookings Institution panel discussion, 2013ko urriak 21, grabazioa eskuragarri hemen: <http://www.brookings.edu/events/2013/10/21-gender-violence-conflict>; Sonke Gender Justice, "Congo-Kinshasa: New Comprehensive Gender Study in Eastern Democratic Republic of Congo for Psychosocial Support to Stop the Violence," November 27, 2013, available at <http://allafrica.com/stories/201311290681.html?viewall=1>.

³⁴ Human Rights First, "Dr. Denis Mukwege: Fighting Sexual Violence in the Democratic Republic of Congo."

³⁵ Stearns, Verweijen eta Baaz, "The national army and armed groups in the eastern Congo: Untangling the Gordian knot of insecurity," 78. or.

³⁶ Kontuan hartu behar dituzte egungo sistemaren ahultasunak, eta erreformek neurtuak eta sotilak izan behar dute. Auzitegi misto batek posible egingo luke Kongoko abokatu eta epaileek atzerriko adituen laguntza izatea epaiketetan. Kongok Jugoslavia ohiko eta Sierra Leonako arrakasta eta porrotetatik ikas lezake, erantzukizunaren eredia hobetuz. Bi leku horietan, AEBak eta NBEa giltzarri izan ziren trantsiziozko justizia forma eta babesa emateko orduan. Kongon ere berdin egin beharko lukete.

³⁷ Rios Montt kondenatzeko frogak ez ziren aski izango abokatuek babesa eman ez balie lekukotza eman zuten ia 100 biktimei, haietatik hamar sexu-indarkeriaren salatzaileak. Guatemalako auzitegi konstituzionalak ezeztatu egin zuen Efraim Rios Montten kondena, epaia eman eta hiru egunera. Dena dela, epaiketa eta hasierako kondena lorpen handia dira biktime izandako komunitateentzat, batez ere asteetan zehar emandako lekukotzei begira. Ezeztapen hori justiziarentzako kolpe gogorra, Rios Montten biktimentzako lotsagarrikeria, eta legez kontrakotzat jo da. Informazio gehiago nahi izanez gero epaiketari buruz eta azken emaitzari eragingo dioten apelazioen egoeraz, ikusi Open Society Institute-k epaiketaz egindako jarraipena hemen: <http://www.riosmontt-trial.org/>.

act:onaid
Netherlands



BEWG



INFO
BIRMANIE

International **Crisis Group**
WORKING TO PREVENT
CONFLICT WORLDWIDE

Investors / **Against Genocide**



Otros firmantes: Acidi Congo (Kivu del Sur), República Democrática del Congo; Action des Chrétiens Activistes des Droits de l'Homme à Shabunda (ACADHOSHA), República Democrática del Congo; Centre National d'Appui au Développement et à la Participation Populaire (CENADEP), República Democrática del Congo; Centre for Trade Union and Human Rights (CTUHR), Filipinas; Fair Trade Centre, Suecia; Free the Slaves, Estados Unidos; Mark Taylor del FAFO Institute for Applied International Studies Oslo, Noruega; Shan Sapawa, Birmania.

Laguntzaileak:

